



Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plana 2024-2027

PARTAIDETZAREN MEMORIA



Aurkibidea

Partaidetza-prozesuaren ikuspegi orokorra	3
BFaren LANGILEEN iritziak eta ekarpenak	6
FORU-ZUZENDARITZEN iritziak eta ekarpenak	9
BFAko GIZARTE-PARTAIDETZARAKO ORGANO EGONKORRETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN iritziak eta ekarpenak	13
BIZKAiko TOKI-ENTITATEEN iritziak eta ekarpenak	17
HERRITARREN iritziak eta ekarpenak	19
Prozesuen ebaluazioa	28

PARTAIDETZA-PROZESUAREN IKUSPEGI OROKORRA



Garatutako prozesuaren ikuspegi orokorra

Partaidetza-prozesuak honakoak hartu ditu barne:

- BFAko langileak.
- Foru-zuzendaritzak.
- BFAren gizarte-partaidetzako organo egonkorretan parte hartzen duten eragileak.
- Bizkaiko toki-entitateak.
- Herritarrak.

Profil horietako bakoitzarentzat hainbat partaidetza-bide erabili dira, batez ere:

- Online inkestak.
- Sakontzeko bilerak eta banakako harremanak.
- Eztabaida Foroa herritarrekin (parte hartzeko prozesuaren funtsezko ekintza azpimarragarria).

Ia 1.600 pertsona eta eragileren iritzia eta proposamenak (Foru Sailenez gain) jaso dira. Horri esker, prozesua aberastu da eta parte hartu duten pertsonen premien eta igurikimenen ikuspegi zabala txertatu ahal izan da.

Ondorengo koadroan garatutako prozesuaren ikuspegi orokorra ematen da:



ERAGILEA

LANDUTAKO GAIAK

GARATUTAKO
DINAMIKAK



**Bizkaiko Foru
Aldundiko plantilla**

- Partaidetzari emandako garrantzia
- BFAn egiten den partaidetzaren ezagutza-maila eta balorazioa
- Partaidetzaren kudeaketa-arloko esperientzia eta behar pertsonalak
- Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak

Online inkesta (103 pertsona)



Foru Aldundiak

- Partaidetzaren funtzionamendua sailean
- Partaidetzaren kudeaketa-arloko esperientzia eta beharrak
- Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak

- Online galdetegia
- Sakontzeko bilerak eta banakako kontaktuak



**BFAko partaidetza
sozialeko organo
egonkorreko eragileak**

- Parte hartzen duten organoen funtzionamendua eta erabilgarritasuna
- Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak

Online inkesta (25 eragile)



Bizkaiko toki-entitateak

- Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak

Online inkesta (33 toki-entitate)



Herritarrek

- Partaidetzari emandako garrantzia
- Aurretiko esperientzia partaidetzaren arloan (eta balorazioa BFAk sustatutako prozesuen kasuan)
- Planerako lehentasunen eta ekintzen proposamenak

- Online inkesta, Bizkaitarren Sareko harpidedunei bidalia (1.358 pertsona)
- Eztabaida Foroa (33 pertsona)

BFaren LANGILEEN iritziak eta ekarpenak



Foru plantillari egindako inkestaren emaitzak

Zer neurritan iruditzen zaizu garrantzitsua parte-hartzea gobernantza publiko hobea eta herritarren inplikazio handiagoa lortzeko tresna gisa?

Bat ere ez edo oso gutxi	% 2
Gutxi	% 6
Handia	% 39
Oso handia	% 53

Zure lan-esperientziagatik, adieraz ezazu baieztapen hauen inguruan duzun adostasun edo desadostasun maila:

	Oso adostasun gutxi edo adostasun gutxi	Nahiko ados edo oso ados
Partaidetzaren erabilerari esker, POLITIKA EDO ZERBITZU PUBLIKO HOBEAK diseinatu edo birdiseinatu ahal izan dira	% 34	% 66
Partaidetzaren erabilerak aukera eman du politika edo zerbitzu publikoak ADOSTASUN HANDIAGOAREKIN lortzeko	% 34	% 66
Parte-hartzea erabiltzeak ATZERAPENA ekarri du ERABAKIAK HARTZERAKOAN	% 66	% 34

Zein neurritan uste duzu ezagutza edo prestakuntza handiagoa beharko zenukeela elementu hauei dagokienez?

	Oso gutxi edo gutxi	Handia edo oso handia
Parte-hartze prozesu bat DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA	% 29	% 71
Parte-hartze prozesu bat DINAMIZATZEA	% 32	% 68
Parte-hartze prozesu bat EBALUATU	% 32	% 68
Partaidetza-prozesu baten KONTUAK EMATEA (emaitzak eta eragina jakinaraztea)	% 37	% 63
Lehendik dagoen parte-hartze gun e bat dinamizatzea	% 44	% 56



Zer neurritan dira lehentasunezkoak Partaidetza Plan berrirako helburu hauek?

	Lehentasunik ez edo gutxi	Nahiko edo oso lehentasunezkoa
“Partaidetza-kultura handiagoa”, oro har	% 8	% 92
“Partaidetza-kultura” handiagoa, bereziki Bizkaiko haur eta nerabeen artean	% 13	% 77
Herritarrei gehien interesatzen zaizkien gaiei buruzko partaidetza-prozesu gehiago	% 9	% 91
Irekita dauden edo irekitzeaz dauden partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 9	% 91
Garatzen diren partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 9	% 91
Elkarteei, udalei, eta bestelako eragileei parte hartzen duten partaidetza-espazioei buruzko komunikazio handiagoa	% 21	% 79
Aldundiak Bizkaiko Udalen eta Mankomunitateen partaidetza-ekimenak babestea	% 26	% 74

Proposatutako neurri nagusiak

- Egiten den partaidetza gehiago komunikatzea.
- Partaidetza errazagoa ahalbidetzea.

FORU-ZUZENDARITZEN iritziak eta ekarpenak



Foru-zuzendaritzei egindako inkestaren emaitzak

Baloratu zenbateraino zauden ados gaur egun zuen zuzendaritzan dauden ERAGILEEKKIN PARTE HARTZEKO ORGANO, FORO ETA KANAL EGONKORREI buruz egindako baieztapenekin

	Oso adostasun gutxi edo adostasun gutxi	Nahiko ados edo oso ados
Funtsezkoak dira eragile horiekin harreman egokia izateko	% 0	% 100
Funtsezkoak dira politikak, zerbitzuak eta programak diseinatzeko	% 13	% 88
Funtsezkoak dira politikak, zerbitzuak eta programak ebaluatzeko	% 21	% 79
Egungo osaera egokia da	% 31	% 69
Gaur egungo funtzionamendua eraginkorra da	% 25	% 75

Baloratu zenbateraino zauden ados zuen Zuzendaritzan egun dauden HERRITARREKIKO PARTE-HARTZE/ENTZUTE AKTIBORAKO KANAL EGONKORREI buruz egindako baieztapenekin

	Oso adostasun gutxi edo adostasun gutxi	Nahiko ados edo oso ados
Funtsezkoak dira herritarren beharrak eta/edo itxaropenak identifikatzeko	% 27	% 73
Funtsezkoak dira herritarrek eskaintzen dizkiegun zerbitzuekiko duten gogobetetasuna ebaluatzeko	% 20	% 80



Baloratu zenbateraino zauden ados AZKEN 4 URTEETAN SUSTATU DITUZUEN PARTE-HARTZE PROZESUEI BURUZ egin dituzun baieztapenekin, kontsulta eta informazio publikoko nahiaezko izapideez haratago

	Oso adostasun gutxi edo adostasun gutxi	Nahiko ados edo oso ados
Gure aurretiko ideiak baliozkotzen lagundu digute	% 23	% 77
Idea erabilgarri berriak ekarri dizkigute	% 31	% 69
Eragile berriak identifikatzeko aukera eman digute, haiekin lankidetzan aritzeko	% 54	% 46
Egiten duguna gehiago ezagutzea ahalbidetu dute	% 31	% 69
Behar bezala funtzionatu dute	% 38	% 62
Ez dute atzerapen esanguratsurik eragin gure jardueran	% 58	% 42

Zer neurritan beharko luke Zuzendaritzako taldeak ezagutza edo prestakuntza handiagoa honako elementu hauei dagokienez?

	Oso gutxi edo gutxi	Handia edo oso handia
Parte-hartze prozesu bat DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA	% 42	% 58
Parte-hartze prozesu bat DINAMIZATZEA	% 42	% 58
Parte-hartze prozesu bat EBALUATU	% 42	% 58
Partaidetza-prozesu baten KONTUAK EMATEA (emaitzak eta eragina jakinaraztea)	% 37	% 63
Lehendik dagoen parte-hartze gunea bat dinamizatzea	% 47	% 53



Zer neurritan dira lehentasunezkoak Partaidetza Plan berrirako helburu hauek?

	Muy poco o poco prioritarios	Bastante o muy prioritarios
“Partaidetza-kultura handiagoa”, oro har	% 10	% 90
“Partaidetza-kultura” handiagoa, bereziki Bizkaiko haur eta nerabeen artean	% 42	% 58
Herritarrei gehien interesatzen zaizkien gaiei buruzko partaidetza-prozesu gehiago	% 10	% 90
Irekita dauden edo irekitzear dauden partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 20	% 80
Garatzen diren partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 10	% 90
Elkarteeak, udalek, eta bestelako eragileek parte hartzen duten partaidetza-espazioei buruzko komunikazio handiagoa	% 20	% 80
Aldundiak Bizkaiko Udalen eta Mankomunitateen partaidetza-ekimenak babestea	% 30	% 70

Proposatutako neurri nagusiak

- Prozesuak gehiago zabaltzea.

BFAko GIZARTE-PARTAIDETZARAKO
ORGANO EGONKORRETAN PARTE HARTZEN
DUTEN ERAGILEEN iritzia eta ekarpenak



BFAko parte-hartze sozialeko organo egonkorretan parte hartzen duten eragileei egindako inkestaren emaitzak

Zer balorazio egiten duzue zuen erakundeak parte hartzen duen egungo parte-hartze egonkorreko tresna eta kanalei dagokienez?

	Ez da nahikoa	Hobetu daiteke/ onargarria	Bikaina
Politikak, programak eta/edo zerbitzuak LANTZEKO tresnak/kanalak duen erabilgarritasuna	% 33	% 67	% 0
Politikak, programak eta/edo zerbitzuak EBALUATZEKO tresnak/kanalak duen erabilgarritasuna	% 28	% 67	% 6
Aliantzak INDARTZEKO ETA/EDO ADOSTASUNAK LORTZEKO gune gisa duen baliagarritasuna	% 17	% 56	% 28
Proposamenak egiteko erraztasuna	% 17	% 78	% 6
Iritziak emateko askatasuna	% 17	% 61	% 22
Bilera-kopuruaren egokitasuna	% 17	% 72	% 11
Bileren iraupenaren egokitasuna	% 17	% 72	% 11
Bilera-kanalen egokitasuna	% 22	% 61	% 17
Parte hartzeko dinamiken egokitasuna	% 28	% 61	% 11
Bileren aurretik emandako informazioa	% 17	% 67	% 17
Bileren ostean emandako informazioa	% 17	% 67	% 17



Zein da zuen balorazioa azken 2 urteetan zuen erakundeak parte hartu duen prozesu espezifikoiei dagokienez?

	Ez da nahikoa	Hobetu daiteke/ onargarria	Bikaina
Iritzia emateko erraztasuna	% 12	% 65	% 24
Proposamenak egiteko erraztasuna	% 18	% 59	% 24
Prozesuei buruz jasotako hasierako informazioa (helburuak, parte hartzeko arauak, egutegiak...)	% 24	% 59	% 18
Irizpidearekin parte hartzea ahalbidetzen duen dokumentazio nahikoa egotea	% 18	% 76	% 6
Prozesuen emaitzei eta herritarren iritzia eta ekarpenak txertatzeko moduari buruzko informazio nahikoa izatea	% 29	% 53	% 18
Hizkera ulergarria erabiltzea (ez oso administratiboa eta/edo teknikoa)	% 12	% 71	% 18
Prozesuaren erabilgarritasun globala (emandako balioa)	% 24	% 76	% 0



Zer neurritan dira lehentasunezkoak Partaidetza Plan berrirako helburu hauek?

	Lehentasunik ez edo gutxi	Nahiko edo oso lehentasunezkoa
“Partaidetza-kultura handiagoa”, oro har	% 12	% 88
“Partaidetza-kultura” handiagoa, bereziki Bizkaiko haur eta nerabeen artean	% 38	% 62
Herritarrei gehien interesatzen zaizkien gaiei buruzko partaidetza-prozesu gehiago	% 0	% 100
Irekita dauden edo irekitzeaz dauden partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 0	% 100
Garatzen diren partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 0	% 100
Elkarteek, udalek, eta bestelako eragileek parte hartzen duten partaidetza-espazioei buruzko komunikazio handiagoa	% 13	% 87
Aldundiak Bizkaiko Udalen eta Mankomunitateen partaidetza-ekimenak babestea	% 33	% 67

Proposatutako neurri nagusiak

- Espazio bakoitzean lortutako emaitzak hobeto komunikatzea.
- Zerbitzuen erabiltzaileak partaidetzan inplikatzeko.

BIZKAiko TOKI-ENTITATEEN iritziak eta ekarpenak



Bizkaiko Toki Erakundeei egindako inkestaren emaitzak

Zer neurritan dira lehentasunezkoak Partaidetza Plan berrirako helburu hauek?

	Lehentasunik ez edo gutxi	Nahiko edo oso lehentasunezkoa
“Partaidetza-kultura handiagoa”, oro har	% 0	% 100
“Partaidetza-kultura” handiagoa, bereziki Bizkaiko haur eta nerabeen artean	% 6	% 94
Herritarrei gehien interesatzen zaizkien gaiet buruzko partaidetza-prozesu gehiago	% 3	% 97
Irekita dauden edo irekitzear dauden partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 3	% 97
Garatzen diren partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 0	% 100
Elkarteek, udalek, eta bestelako eragileek parte hartzen duten partaidetza-espazioei buruzko komunikazio handiagoa	% 6	% 94
Aldundiak Bizkaiko Udalen eta Mankomunitateen partaidetza-ekimenak babestea	% 6	% 94

Proposatutako neurri nagusiak

- Partaidetzan Inklusibotasuna bermatzea.
- Bitarteko eta kanal guztiak erabiltzea partaidetza sustatzeko, eta aurrez aurreko partaidetza neurri handiagoan sartzeko. Partaidetza-jarduera sustatzea eta hedatzea.
- Partaidetza-arloan lankidetzan aritzea/ikastea.

HERRITARREN iritzia eta ekarpenak



Herritarrei egindako inkestaren emaitzak

Zer neurritan iruditzen zaizu garrantzitsua parte-hartzea gobernantza publiko hobea eta herritarren inplikazio handiagoa lortzeko tresna gisa?

Bat ere ez edo oso gutxi	% 1
Gutxi	% 8
Handia	% 44
Oso handia	% 47

Zein da zure batez besteko gogobetetze-maila parte hartu duzun BFAk bultzatutako parte-hartze prozesuetako elementu hauei dagokienez?

	Txikia edo oso txikia	Handia edo oso handia
Iritzia emateko erraztasuna	% 55	% 45
Proposamenak egiteko erraztasuna	% 63	% 37
Prozesuei buruz jasotako hasierako informazioa (helburuak, parte hartzeko arauak, egutegiak...)	% 64	% 36
Irizpidearekin parte hartzea ahalbidetzen duen dokumentazio nahikoa egotea	% 68	% 32
Prozesuen emaitzei eta herritarren iritzia eta ekarpenak txertatzeko moduari buruzko informazio nahikoa izatea	% 70	% 30
Hizkera ulergarria erabiltzea (ez oso administratiboa eta/edo teknikoa)	% 48	% 52

Zer iritzi duzu parte hartu duzun partaidetza-prozesuetan parte hartzeak izan duen eraginari buruz?

Inolako eraginik ez edo eragin eskasa	% 57
Eragin ertaina	% 39
Eragin handia	% 4



Zer neurritan dira lehentasunezkoak Partaidetza Plan berrirako helburu hauek?

	Lehentasunik ez edo gutxi	Nahiko edo oso lehentasunezkoa
“Partaidetza-kultura handiagoa”, oro har	% 9	% 91
“Partaidetza-kultura” handiagoa, bereziki Bizkaiko haur eta nerabeen artean	% 13	% 87
Herritarrei gehien interesatzen zaizkien gaietako buruzko partaidetza-prozesu gehiago	% 5	% 95
Irekita dauden edo irekitzeko dauden partaidetza-prozesuetan buruzko komunikazio handiagoa	% 5	% 95
Garatzen diren partaidetza-prozesuetan buruzko komunikazio handiagoa	% 5	% 95
Elkarteak, udalak, eta bestelako eragileek parte hartzen duten partaidetza-espazioetako buruzko komunikazio handiagoa	% 8	% 92
Aldundiak Bizkaiko Udalen eta Mankomunitateen partaidetza-ekimenak babestea	% 7	% 93

Proposatutako neurri nagusiak

- Prozesuak behar beste komunikatzea.
- Egindako iritziak eta ekarpenak kontuan hartzen direla bermatzea.
- Kolektibo zehatzen partaidetza lortzea: umeak, nerabeak, gazteak, adinekoak, emakumeak, desgaitasuna duten pertsonak, ...



Eztabaida-foroa

Eztabaida Foro hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako III. Plana prestatzeko prozesuaren barruan egin da. Plana 2023. urtean zehar zehaztuko da.

Foroan 33 pertsonak hartu zuten parte:



13 emakumek



20 gizonek

Honakoa izan zen Foroaren programa:

Ordua	Jarduera
09.45-10.00	Parte-hartzaileei harrera egitea.
10.00-10.15	Erakundeen ongi-etorria eta lan-programaren aurkezpena.
10.15-11.30	Bizkaiko Foru Aldundiaren Partaidetza-eredua azaltzea. Eztabaidagai jarraitako gaiak aurkeztea.
11.30-12.00	Kaferako etenaldia.
12.00-13.45	BFAn partaidetzari balio handiagoa emateko txertatu edo kontuan hartu beharreko elementuak identifikatzea (talde-lana).
13.45-14.00	Alternatibak aztertu eta lehenestea.
14.00-15.00	Otamena.
15.00-16.15	Gomendioak egitea.
16.15-16.45	Bateratzea eta bozkatzea.
16.45-17.00	Foroaren ebaluazioa, esker ona eta amaiera.



EZTABAIDA-FOROAK EMANDAKO GOMENDIOAK

1. GAIA : NOLA GAUZATU PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

- 1.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu lurraldeko biztanleriaren profilak kontuan hartzea gaitzen dituen partaidetza-kanaletan, hala nola adina, ikasketa-maila, bizilekua...
- 2.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu parte hartzeko kanal hauek izatea: aurrez aurrekoa, telefono bidezkoa, posta bidezkoa eta telematikoa (web-orriak, bideo-hitzaldiak, txatak, sareak, e-mailak eta abar).
- 3.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu hala eskatzen duten pertsonei, gaur egun bide elektronikoz eskaintzen den informazioaz gain, eskuliburu, gida, liburuxka fisikoak... ematea, herritarrek nola parte hartu jakin dezaten.
- 4.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazioa euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuetara egokitzea.
- 5.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarrei partaidetza- eta ezagutza-kanalak bermatzea parte hartzeko prozesuaren etapa guztietan.
- 6.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Errenta Aitorpenerako gaitutako kanalak aprobetxatzea, BFaren herritarren partaidetza-eredua, besteak beste, ezagutarazteko.

2. GAIA: NOLA EZAGUTU/ESKURATU PARTE HARTZEKO AUKERAK

- 7.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundia eta gainerako erakundeak kalera, "herriz herri" ateratzea, partaidetza-aukerak azaltzeko (adibidez, stand-en, topaketen, foru-langileen eta abarren bidez). Zehazki, Foru Aldundiko langileek partaidetzaren sustapenean zeregin garrantzitsua izan dezatela.
- 8.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarren parte-hartzea sustatzea, parte hartzeko karpn, azoken eta adin guztientzako jarduera erakargarriak dituzten tokiko jaien bidez.
- 9.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu kanal anitzeko bitartekoak erabiltzea herritarren parte-hartzea sustatzeko, eta komunikazio-kanpaina espezifikoak ezagutaraztea telebista, postontzi, prentsa idatzi, sare sozial, webgune, tokiko aldizkari eta abarren bidez.
- 10.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu herritarren partaidetza eskolatik sustatzea, hitzaldien eta ate irekitako jardunaldien bitartez. Parte hartzen irakastea.
- 11.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu partaidetza-proiektu honek jarraipena izan dezala eta haren garapenean sakondu dadila, eta, halaber, bertan Aldundiko sail guztiak inplika daitezela.



3. GAIA: PROZESUAN ZEHAR EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

12.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu beharrezko zabalpen-kanpainak egitea, herritarrei aldez aurretik jakinarazita, eta beste kanpaina arrakastatsu batzuetan (adibidez: Errenta) erabilitako bitarteen bidez ikusaraziz.

13.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu emandako informazioa irakurketa errazaren formatuan azaltzea, argia, laburra, eta zehatza baita, eta horrela herritar guztiek ulertzeko modukoa izan dadin.

14.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu informazio gehiago ematea eztabaida foroan deialdietan (bibliografia, foroaren egitura galderekin), gonbidatuek, aldez aurretik eta borondatez, landu beharreko gaiari buruzko informazioa jaso dezaten.

15.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu aukeratutako gaiaren arrazoiak (errealitatea eta problematika) aldez aurretik eta aurrerapen nahikoarekin (15 egun lehenago gutxi gorabehera) ematea, konponbidea erraztuko duten neurri egokiak ezartzeko egin beharreko urratsak eta egungo egoera zehaztuz.

16.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, interes handia eta parte-hartze handiagoa lortzeko, parte-hartzaileei informazioaren aldizkako jarraipena bermatzea, gaiak zer bilakaera izan duen jakiteko, proposamenen hasierako ekarpenetik aukeratutako ondorioetaraino.

17.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu partaidetzarako deialdian zehatz-mehatz zehaztea parte-hartze horrek norberaren onerako eta gainerako herritarrentzat izan ditzakeen onurak.

18.- BFaren partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu nazioarteko beste esperientzia global batzuk biltzea honakoei buruz: parte hartu ahal izateko, gaiei lotuta eman behar den informazio mota, eta, parte hartzeko interesa pizteko, prozesuaren gainean eman beharreko informazioa.

4. GAIA: GARDENTASUNERAKO ETA EMAITZAK ITZULTZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK

19.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak prozesuaren jarraipena egiteko konpromisoa har dezala. Horretarako, Aldundiak txosten bat argitaratu beharko du, dagokion formatuan, egindako ekarpenak behar bezala kudeatzen ari direla eta emaitza egokiak lortzen ari direla erakusteko. Emaitzak ezagutzeko eskubidea bermatuko da Aldundiaren webgunean, sare sozialetan, komunikabideetan, eta, aurrez aurre, Aldundiaren bulegoetan, udaletan, eta abarretan.

20.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, prozesuaren emaitzak zabaltzean, hizkera erraza (ez-teknikoa) erabiltzea egiten diren euskarri guztietan, eta grafikoekin eta irudiekin batera aurkeztea, herritarrek erraz uler ditzaten.

21.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak erantzun diezaiola herritar bakoitzak egindako ekarpenari/proposamenari, hau da, proposamen bakoitzari erantzun diezaiola.

22.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu Aldundiak, ekarpenei buruzko txostena argitaratzeaz gain, publizitate aktiboaren printzipioari jarraitzea, hau da, bizkaitar gehiagorengana iristeko, Aldundiak zabalpen-ekintzak egitea, prozesuaren emaitzak parte-hartzaileei eta parte-hartzaile izan ez direnei jakinarazteko.



23.- BFAko partaidetza-zerbitzuari (Partaidetza) gomendatzen diogu, herritarrek emaitzak errazago aurki ditzaten, Aldundiaren webgunearen hasieran partaidetza-atalerako zuzeneko sarbidea ipintzea, herritarrek errazago ikus eta aurki ditzaten (webgunerako zuzeneko sarbidea).



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK

- 1.- Kolektibo bakoitzak partaidetza-prozesuetan parte hartzea erraztuko duten kanalak indartzea. Herritarren partaidetza sustatzeko kanalak sendotzea, betiere efizientziaren eta arrazionaltasunaren printzipioak aplikatuz.
- 2.- Berariazko kanalak erabiltzea IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) gutxien ezagutzen dituzten kolektiboen edo/eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboen parte-hartzea ahalbidetzeko. Batez ere, gaiak kolektibo jakin batean eragina izan dezakeenean.
- 3.- Kanal anitzeko partaidetzaren alde egitea, parte hartzeko eskubidea gauzatzeko aukera emango baitu eta , gainera, modu eragingorrean.
- 4.- Aurrez aurreko kanalak bermatzea IKTak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak) gutxien ezagutzen dituzten kolektiboentzat edo/eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden kolektiboentzat, batez ere, gaiak pertsona horiengan eragina izan dezakeenean.
- 5.- Paperezko informazio-materiala sortzea, Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetzaren ereduari eta parte hartzeko kanal eta espazioei buruz.
- 6.- Informazio-materiala eskuragarri egongo da Bizkaiko Foru Aldundiko Herritarren Arretarako Bulegoetan, eta partaidetzari eta Gobernu Irekiari lotutako ekitaldi, jarduera edo/eta dinamiketan.
- 7.- Horrez gain, informazio-material hori Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza-webgunean argitaratuko da.
- 8.- Partaidetza-prozesuen itxieran sakontzen jarraitzea, honako informazio hau ematen duten txosten edo memorien bidez:
 - Abian jarritako partaidetza- eta hedapen-kanalak.
 - Lortutako partaidetza-maila (globala eta taldeka zein kolektiboka banatuta).
 - Partaidetzaren bidez lortutako eragina
- 9.- BFAk bere gain hartzen du partaidetza-aukerak lurraldera gehiago hurbiltzeko konpromisoa, batez ere, xede-publiko zabalagoa duten prozesuetan. Herritarrek artatzeko Gertu bulegoen bitartez egingo da lan, Bizkaiko lurraldeetan banatuta baitaude eta funtsezkoak izango baitira hurbilketa horretan. Gainera, Partaidetza Plan berriak Aldundian aritzen diren langileei zuzendutako prestakuntza-jarduerak indartuko ditu , partaidetza-prozesuetan protagonismo handiagoa izan dezaten.
- 10.- Partaidetza-aukerak lurraldera gehiago hurbiltzea, batez ere xede-publiko zabalagoa duten prozesuetan, udalek egiten dituzten jolas-jarduerak aprobetxatuz. Horrela, gehiago sustatuko da partaidetza.
- 11.- Partaidetza erakargarriagoa eta lagunkoiagoa egitea, gamifikazioaren (jolas-elementuen erabilera) potentzialitatea partaidetza-prozesuetan aplikatuz.
- 12.- Herritarren partaidetza sustatzeko kanalak sendotzea, betiere efizientziaren eta arrazionaltasunaren printzipioak aplikatuz. Gainera, lankidetzarako formulak landuko ditugu udal-komunikazioko kanalak aprobetxatzeko, parte hartzeko foru-prozesuak herritarrei hurbiltze aldera.



13.- Bizkaiko gazteen partaidetza sustatzen jarraitzea. Hurrengo Partaidetza Planean haurren eta nerabeen partaidetza sustatzeko berariazko ildo espezifikoa sartzea, udal- eta lurralde-mailako proiektuak berariaz babestuz.

14.- Eztabaida Foroak bultzatzen jarraitzea, formatu hori egokiena dela ulertzen den beste gai batzuetan.

15.- Eztabaida -printzipioak partaidetzarako beste formatu batzuetan aplikatzea, espezifiki 2 dimentsio indartuz:

- Prozesu bakoitzaren hasieran emandako testuinguru-informazioa, informazioan gehiago oinarritutako partaidetza ahalbideatzeko.
- Partaidetza-prozesuetan hartutako konpromisoak abian jartzeari buruzko kontuak ematea.

16.- Hizkera Argiaren printzipioen aplikazioa indartzea partaidetza-prozesuetan sortutako dokumentazioan. Txosten luzeagoetan, horien laburpen exekutiboa sartuko da.

17.- Antolatzen diren hurrengo Eztabaida Foroetan gomendioak egiteko galderak Foroa egin aurretik eta behar besteko aurrerapenarekin bidaliko dira. Testuinguruan jartzeko bibliografia eta dokumentazioa ere bidaliko dira. Testuinguruan jartzeko dokumentazioak parte hartzeko aurkeztutako problematikari edo aukerari buruzko datuak jasoko ditu, bai eta BFA, problematika hori konpontzeko edo aukera hori baliatzeko, aztertzen ari den lan-ildoen azalpena ere.

18.- Partaidetza-prozesu guztiek Partaidetzaren Memoria bat edukiko dute. Memoria horrek aukera emango du partaidetzak aztergai izan duen arau, plan, programa edo zerbitzuan parte-hartzeak izan duen eragina erraz ezagutzeko. Memoriak zuzenean igorriko zaizkie prozesuan parte hartu duten pertsonen, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza-webgunean ere argitaratuko dira. Partaidetza Memoriek jasotako ekarpenen/proposamenen erantzunarekin lotutako edukiak indartuko dituzte, eta erantzun hori bai banaka bai antzekoak diren beste batzuekin integratuta emango da.

19.- Partaidetzaren onuren komunikazioa indartzea, bai partaidetzarako Bizkaiko Foru Aldundiaren ereduari eta jardunbideari buruzko komunikazio orokorrean, bai bultzatzen diren prozesuetan.

20.- Euskadiko, estatuko eta nazioarteko partaidetza-arloko jardunbide egokien identifikazioa, analisia eta txertaketa sendotzea.

21.- Partaidetza-prozesuetan hartutako konpromisoen berariazko jarraipena egitea, bai eta horien betetze-mailari buruz kontu-emate egokia ere. Hedapen-kanal egokienak erabiliko dira, betiere efizientziaren eta arrazionaltasunaren printzipioekin bat etorruta.

22.- BFaren partaidetza-webgunearen posizionamendu ona lortzeko lan egitea, bilatzaileetan eskuragarri egon dadin eta herritarrek errazago aurki dezaten.

PROZESUEN EBALUAZIOA



Garatutako partaidetza-prozesuak Planari emandako balioa

Garatu den partaidetza-prozesuari esker, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako III. Plana egiteko beharrezkoak diren **funtsezko eragileen tipologia guztien iritziak eta proposamenak jaso ahal izan dira.**

Garatu den prozesuak **aukera eman du 2020-2023ko Partaidetza Planaren ebaluazioan identifikatutako hobekuntza-eremuak berresteko.** Gainera, prozesuari esker, oso ikuspegi partekatua lortu da Bizkaiko parte-hartzean sakontzen jarraitzeko barne- eta kanpo-eragileek gomendatzen dituzten helburu estrategikoei eta lehentasunezko lan-ildoei buruz; halaber, aztertu ondoren, Plana osatzen duten jardueretan txertatu ahal izan diren proposamen zehatzak jaso dira.

Berriz ere nabarmendu behar da Eztabaida Foroak emandako balioa, hortik eratorri baitira Foru Aldundiak bere gain hartutako konpromiso zehatzak, Plan honen helburuetan eta jardueretan jasota daudenak.

Galdetegietan proposatutako helburuei dagokienez, guztiekiko adostasun-maila oso handia da.

HELBURU HAUEKIKO ADOSTASUN-MAILA
(helburu hauek nahiko edo oso lehentasunezkotzat jotzen duten eragile/pertsonen %)

Helburuen lehentasuna	BFAko plantilla	BFAko zuzendaritza nagusiak	Partaidetza- organoetako eragileak	Toki- entitateak	Herritarrak
“Partaidetza-kultura handiagoa”, oro har	% 92	% 90	% 88	% 100	% 91
“Partaidetza-kultura” handiagoa, bereziki Bizkaiko haur eta nerabeen artean	% 77	% 58	% 62	% 94	% 87
Herritarrei gehien interesatzen zaizkien gaiei buruzko partaidetza-prozesu gehiago	% 91	% 90	% 100	% 97	% 95
Irekita dauden edo irekitzeaz dauden partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 91	% 80	% 100	% 97	% 95
Garatzen diren partaidetza-prozesuei buruzko komunikazio handiagoa	% 91	% 90	% 100	% 100	% 95
Elkarteek, udalek, eta bestelako eragileek parte hartzen duten partaidetza-espazioei buruzko komunikazio handiagoa	% 79	% 80	% 87	% 94	% 92
Aldundiak Bizkaiko Udalen eta Mankomunitateen partaidetza-ekimenak babestea	% 74	% 70	% 67	% 94	% 93

